



TOKIKO AGENDA 21 BERASTEGIKO EKINTZA PLANA

2013ko EMAITZAK

Gipuzkoako udalerriei
TA21eko ekintza planak
ebaluatzeko zerbitzua

Laguntza teknikoa: *Enea*



TA21EKO BEHATOKIA
OBSERVATORIO AL 21
GIPUZKOA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

Tokiko agenda 21


Tokiko agenda 21 1992an jaio zen Rio de Janeiron ospatu zen **Iraunkortasun Garapenari** buruzko Nazio Batuen Gailurrean lortutako hitzarmen bidez.

20 urte beranduago bere presentzia **Gipuzkoan** oso esanguratsua da.

Tokiko agenda 21aren presentzia Gipuzkoan

- **83 udalerrik tokiko agenda 21** onartu dute.
- **40** udalerrik beren tokiko agenda 21a urtero ebaluatzen dute, hauen artean, gureak, udalerrri hauek **Gipuzkoako biztanleriaren % 80 baino gehiago** hartzen dutelarik. Kasu hauetan, agenda 21a kontuen emateari bideratutako udal kudeaketa eredu gisa aurkezten da.
- Aldundiak **9** urte daramatza **tokiko agenda 21aren Behatokitik** bere garapena eta ebaluazioa sustatuz, baita udal politika hauen helburuekiko kudeaketa bultzatuz ere.


Nolakoa da gure udalerriko ekintza plana?



Eta gainontzeko tokiko agenda 21ekin alderatuz?

Gure planeko **ekintza kopurua**, antzeko tamaina duten lurraldeko udalerrien batez bestekoarekin alderatuz **altuagoa** da.

Inplikaturik dauden **eragileen kopurua** lurraldeko batez bestekoaren **antzekoa** da.



Iturria: GFAko 2013ko emaitzen txostena


2013ra arte zenbat gauzatu dugu?

Planaren **%56**
gauzatu da
6 urtetan

%6ko
gehikuntza
2013an


Eta zer adierazten du?

Lortutako gauzatze maila baxuagoa da oinarri bezala desiragarria den **helburuko balioa** hartuz, baina **altuagoa** urte horretan bertan lurraldeko **batez besteko balioa** hartuz.



Iturria: GFAko 2013ko emaitzen txostena

Nola dago momentu honetan gure plana?



2013an amaitutako ekintza batzuk

1.1.1 Udaletxearen errehabilitazio eta berriztapen proiektua diseinatu eta exekutatu, betiere, jatorrizko estruktura arkitektonikoa errespetatuz.

3.7.5 Lur zati baten jabe den oro konposta egin dezan bultzatu.

6.1.1. Udala eta gizarte eragile garrantzitsuenen artean batzorde bat eratu.

Ezartze-maila esanguratsua daukaten ildo estrategikoak

Burutzen ari diren **ekintza**
batzuk:

**Udala eta herritarren
arteko kohesioa** sustatzea
%75eko ezarpenarekin

- 6.2.1. Herriari buruzko gai ezberdinak eztabaidatzeko herri batzarrak egiten jarraitu tokiko Agenda 21ek eskaintzen duen aukera baliatuz

**Udal zerbitzu
desberdinak** bermatzea eta
garatzea **%64**ko ezarpenarekin

- 1.5.4 Osasun zerbitzuak eskeintzeko lekua egokitu
- 1.7.1 Udalerrian parekidetasuna txertatzeko bitartekoak jarri

Udal kudeaketa hobetu
**iraunkortasun
irizpideak** sartuz **%63**eko
ezarpenarekin

- 3.5.1 Berastegiko auzo ezberdinetan argiteria ezarri (Izotzalde, Arbide...), betiere, kontaminazio luminikorik eragin gabe
- 3.7.3 Hondakinen murrizketa eta gaikako bilketaren inguruko sentsibilizazio ekintzak burutu

2014an sustapena behar duten ildo estrategikoak

Baserri bizitza mantentzea eta suspertzea,
naturaren, paisaiaren, ondare kulturalaren eta
herri nortasunaren babesarekin uztartuz
%40eko ezarpenarekin

Informazioa gehiagorako gure web-ean dagoen **ebaluazio txosten osoa** begiratu dezakezu:

www.berastegi.com

Berastegiko Udaletik tokiko iraunkortasuna hobetzearen alde egin nahi dugu, gure ekintzek globalki ere izan dezaketen ondorioak kontutan izanik.

‘Globalki pentsatu eta tokian jardun’

